

## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2021/2022 ikasturtea**

### **LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEGAIEN EUSKARAREN ERABILERA ETA JARRERAK**

Autokontzeptuaren, ikasteko estrategien eta motibazioaren eraginaren azterketa

Egilea: Ainhize Martínez García

Zuzendaria: Naia Eguskiza Sanchez

Leioan, 2022ko irailaren 20an

# AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>1</b>
<b>2. Marko teorikoa</b> .....	<b>3</b>
2.1. Euskararen erabileraz datu batzuk.....	3
2.2. Euskararen estandarizazio eta normalizazio prozesuak: ibilbide historiko laburra ....	5
2.3. Hizkuntza ereduak eskolan.....	7
2.4. Hizkuntza jarrerak eta erabilera .....	8
2.5. Motibazioa eta ikasteko estrategiak: jarrerekin zuzeneko lotura duten aldagaiak .....	9
<b>3. Helburuak eta hipotesiak</b> .....	<b>10</b>
<b>4. Metodologia</b> .....	<b>11</b>
4.1. Datuak jasotzeko metodologia .....	11
4.1.1. Lagina.....	11
4.1.2. Tresnak.....	12
4.1.3. Prozedura.....	12
4.2. Datuak aztertzeko metodologia.....	13
<b>5. Emaitzak</b> .....	<b>14</b>
5.1. Autokontzeptua .....	14
5.2. Ikasteko estrategiak eta motibazioa.....	16
5.3. Euskararen erabilera .....	18
5.4. Euskararekiko jarrerak .....	19
5.5. Bloke ezberdinetako emaitzen arteko korrelazioak.....	21
5.6. Sumarioa eta ondorioak.....	23
<b>6. Proposamena: kontzientziatorako dibulgaziozko bideoa</b> .....	<b>23</b>
<b>7. Ondorioak</b> .....	<b>24</b>
<b>8. Etika profesionala</b> .....	<b>26</b>
<b>9. Erreferentzia bibliografikoak</b> .....	<b>27</b>
<b>10. Eranskinak</b> .....	<b>30</b>
10.1. Eranskina: Laginaren hedadura.....	30
10.2. Eranskina: Baimen-orria.....	31
10.3. Eranskina: Itemak.....	32

# LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEGAIEN EUSKARAREN ERABILERA ETA JARRERAK

Autokontzeptuaren, ikasteko estrategien eta motibazioaren eraginaren azterketa

Ainhize Martínez García

UPV/EHU

Euskararen ezagutza-mailak gora egin du, baina azken urteotan hizkuntzaren erabilera nabarmen jaitsi da. Hezkuntza testuinguruan ere antzekoa gertatu da, eta are kezagarriagoa da kontuan hartzen badugu etorkizuneko hezitzaileez ari garela. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia da Bilboko Hezkuntza Fakultateko Lehen Hezkuntzako irakaslegaien artean euskararen egoera aztertzea, autokontzeptuaren, ikasteko estrategien, motibazioaren, erabileraren eta jarreraren artean dauden harremanak bilatuz. Horretarako, informazioa biltzeko, galdetegi bat diseinatu da, gaian aditu nabarmen baten tesiari jarraituz. Jasotako erantzunak aztertu ondoren, Bilboko Hezkuntza Fakultatean dagoen hizkuntza-errealitatea definitu da, eta bideo bat sortu da dibulgazio-proposamen gisa.

*Lehen Hezkuntza, Autokontzeptua, Ikasteko estrategiak, Motibazioa, Erabilera, Jarrerak*

El nivel de conocimiento del euskera ha aumentado, pero en los últimos años el uso de la lengua ha descendido considerablemente. Algo similar ha ocurrido en el contexto educativo, y resulta ser más preocupante aún si tenemos en cuenta que se trata de los educadores del futuro. Por ello, el objetivo principal de este Trabajo de Fin de Grado es analizar la situación del euskera entre el profesorado de Educación Primaria de la Facultad de Educación de Bilbao, buscando las relaciones existentes entre el autoconcepto, las estrategias de aprendizaje, la motivación, el uso y las actitudes. Para ello, se ha diseñado un cuestionario para recabar información, siguiendo la tesis de un destacado experto en la materia. Tras analizar las respuestas recibidas, se ha definido la realidad lingüística existente en la Facultad de Educación de Bilbao y se ha creado un vídeo como propuesta divulgativa.

*Educación Primaria, Autoconcepto, Estrategias de aprendizaje, Motivación, Uso, Actitudes*

The level of knowledge of Basque has increased, but in recent years the use of the language has decreased considerably. Something similar has happened in the educational context, and it is even more worrying if we consider that these are the educators of the future. Therefore, the main objective of this Final Degree Project is to analyze the situation of Basque among Primary Education teachers of the Faculty of Education of Bilbao, looking for the existing relationships between self-concept, learning strategies, motivation, use and attitudes. For this purpose, a questionnaire has been designed to collect information, following the thesis of a leading expert in the field. After analyzing the answers received, the existing linguistic reality in the Faculty of Education of Bilbao has been defined and a video has been created as an informative proposal.

*Primary Education, Self-concept, Learning Strategies, Motivation, Use, Attitudes*

## 1. Sarrera

Hizkuntza hiztun-komunitatearen beraren kultura-ibilbide luze baten emaitza da. Gainera, estokastikoa da, erabiltzen jarraitzen den neurrian, beti garatzen ari den sistema baita. Euskararen kasuan, beste berezitasun soziopolitiko batzuk ere baditu. Alde batetik, gutxiengoen hizkuntza da, neurri handi batean beste hizkuntza nagusi bateko hiztun diren hiztun kopuru txiki batek erabiltzen baitu. Aldi berean, hizkuntza gutxituta ere bada; izan ere, hainbat egoera historikoren ondorioz, gutxietsi egin da, baita debekatu ere.

Azken urteotan euskararen berreskuratze linguistikoa gertatu da, hain zuzen ere estandarizazio- eta normalizazio-prozesuei esker, eta horrek hizkuntzaren galera gelditzea eta ezagutza nabarmen handitzea ekarri du. Gauzak horrela, Autonomia Estatutuan (EAE, 1979) euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial izendatu zenetik, hainbat arau garatu eta hainbat erakunde eratu dira euskararen gaitasuna, erabilera eta estatusa berreskuratzeko.

Lege-erreformek hezkuntza-erreformak ekarri zituzten. Euskararen Erabilera Arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua ekarri zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena. Dekretu horri esker, hezkuntza elebiduna ezarri zen Euskal Herrian, hizkuntza pertsonaren nortasunaren eta sustraitzearen elementu gisa ulertuz.

Euskara dakitenen kopuruak gora egin du. Testuinguru horretan, “euskaldun berriak” agertzen dira, hots, euskaraz etxetik kanpo alfabetatu direnak, dela eskolan, dela euskaltegian etab. Gero eta euskaldun gehiagok eskuratu du euskara familiarik kanpo. Urteak aurrera joan ahala, hizkuntza-eredu elebidunetako matrikulazioek gora egin dute. Nik B ereduan egin nituen ikasketak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arte. Hala ere, denok ama-hizkuntza gatzelania genuen testuinguru horretan, ikasgelan euskararen erabilera faktore ezberdinek baldintzatzen zuten, eta faktore horien artean hizkuntza-gaitasunaren maila pertsonalak, jarrerazko edo motibaziozko elementuek baino garrantzi handiagoa zuela zirudien.

Batxilergoa, aldiz, A ereduan bakarrik eskaintzen zen. Ikastetxean arnasten zen giro linguistikoak ez zion mesederik egiten euskararen erabilerari. Beraz, hizkuntza-eskaintza horrek, bai ikastetxeak bai ikasleek hizkuntzarekiko duten jarrera txarrekin batera, euskararen balioa galtzea zekarren. Hain da horrela, ezen irakasle batek esan baitzidan hizkuntza ikaskuntzan nire ibilbidea izandako pertsona batek ezingo lukeela inoiz gradu bat euskaraz ikasi.

Hala ere, familia beharrezko eremua da hizkuntza-normalizazioan eta euskararen transmisioan laguntzeko. Familia eremuan jasotako laguntzari esker, gehiago trebatzea erabaki nuen, bai barnetegi batean bai euskaltegi batean matrikulatuz, nire ezagutzak indartzeko eta etorkizunean nire ikasleei kalitatezko hizkuntza hezkuntza eskaini ahal izateko.

Praktiketan zehar ezagututako errealitate gordinean egiaztatu ahal izan dut egoera berberak dirauela gaur egungo eskola testuinguruan. Euskarak ez du oraindik merezi duen prestigioaz gozaten gure kulturaren elementu gisa. Ondorioz, hizkuntza gutxi baloratzen duten irakasleak aurki ditzakegu ikasgelen barruan; horrek nabarmen eragiten die ikasleei beren autokontzeptuan, motibazioan eta hizkuntzarekiko jarreratan, baina, batez ere, erabileran.

Etorkizuneko irakasle gisa, gero eta kezagarriagoa den hizkuntza-errealitate horri aurre egiteko estrategiak planteatu, garatu eta aplikatu beharko lirateke. Gaur egunean, hainbat erakundeek euskara sustatzeko borrokan jarraitzen dute. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) definitutako 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako 17 helburuen artean (GHI), ordea, ez da hizkuntza-aniztasuna aipatzen (UNESCO, 2017). Horregatik, 2017. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak (MHOUK), Donostiako Easo Politeknikoarekin batera, «17+1» helburua proposatu zuen. Beraz, 18. helburu bat ezarri zen; alegia, “hizkuntza eta kultur aniztasuna” (García-Azkoaga eta Idiazabal, 2021) deritzona. Lan honek zuzenean urratzen du GIH hori.

Gradu Amaierako Lan honek indarrak batzeko, irizpideak finkatzeko, indarguneak sendotzeko eta gabeziak konpontzeko tresna izan nahi du, aipatutako 18. helburua oinarri hartuta. Hori dela medio, lan honetan burutu den ikerketaren helburu nagusia Bilboko Hezkuntza Fakultateko Lehen Hezkuntzako irakaslegaien euskararen erabileraren eta jarreraren arteko korrelazioa aztertzea izango da, batetik autokontzeptua eta bestetik, ikasteko estrategiak eta motibazioa bezalako faktoreek zer-nolako eragina duten aztertuz. Are gehiago, Fakultateko egoera linguistikoa ikertuko da, gabeziak identifikatzeko eta hobetzeko proposamenak eskaintzeko. Izan ere, euskarak erronka handiei aurre egin behar die. Hizkuntza baten aurrerapena, batez ere, hizkuntza hori hitz egiten dutenen esku dago, eta, erakundeak, beren kabuz, hizkuntza hori garatzeko eta komunikatzeko hizkuntza bizi gisa sustatzeko gai ez direla oinarri hartuta (Eusko Jaurlaritza, 1999), beharrezkoa da hezkuntza-sustraietatik aldaketa sorraraztea. Horregatik, erronka linguistiko honen erantzukizun nagusia irakasleei dagokie.

Azken batean, gure gizarteak betidanik lortu nahi izan duen hizkuntza-normalizazioa lortu nahi bada, beharrezkotzat jotzen da banakako hizkuntza-jarrerak hezkuntzaren oinarri izatea. Bestalde, autokontzeptua, ikasteko estrategiak eta motibazio akademikoa, lan honetan ikergai izan direnak, oinarritzko helburutzat hartzen dira ikaskuntza-prozesuak orientatzeko orduan. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da ikaskuntza-prozesuan faktore afektiboak kontuan hartzea, errendimendu akademikoan eta ondorioz hizkuntzaren erabileran eta prestigioan aurrerapenak lortzeko.

Ildo horretatik, lana 8 ataletan adarkatzen da. Sarrera honen ostean, marko teorikoa eta kontzeptuala garatuko da. Ostean, lanaren helburuak eta hipotesiak zeintzuk diren azalduko da. Ikerketa honen metodologia laugarren atalean aurkezten da; alde batetik datuak jasotzeko metodologia azaltzen da, bestetik, datuak aztertzeko metodologia. Jarraian, bosgarren atalean ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira eta hurrengoan, seigarrenean, emaitza horiekin elkarloturik dagoen dibulgaziozko proposamena. Zazpigarren atalean ondorioak aurkezten dira, eta lanari amaiera emateko, etika profesionala aipatzen da zortzigarren atalean.

## **2. Marko teorikoa**

Ondorengo lerroetan garatutako esparru teorikoa eta kontzeptuala azalduko da, bost azpiataletan adarkatuta. Lehenengoan euskararen erabileraz datu batzuk aurkezten dira. Bigarreanean, euskararen estandarizazio eta normalizazio prozesuak garatzen dira. Ostean, hizkuntza ereduak eskolan aztertzen dira. Laugarren azpiatalean, hizkuntza jarrerak eta erabilera, eta azkenik, bosgarren azpiatalean, motibazioaren eta ikasteko estrategien inguruko informazioa eskaintzen da, jarrerekin zuzeneko lotura duten aldagaiak.


### **2.1. Euskararen erabileraz datu batzuk**

Bistakoa da euskarak azken hamarkadetan izan duen aurrerapena. 2019an berrogei urte bete ziren Autonomia Estatutuak (EAE, 1979) euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala aldarrikatu zuenetik. Estatutu horren ondorioz, gaur egun Bizkaian bizi diren 986.000 pertsonetatik 473.000 inguruk euskara badakite (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Eusko Jaurlaritza, 2016), eta horietako asko eskola-testuinguruan hizkuntza ikasi duten hiztun berriak dira. Horrek agerian uzten du euskararen hizkuntza-plangintzaren esperientziak Euskal Autonomia Erkidegoan duen eraginkortasuna, hezkuntza-sistemak arrakastaz bideratu baititu hizkuntzaren ezagutzarantz (Larrea eta Bilbao, 2010). Horrela, euskarak XX. mendearen hasieratik izan zuen desplazamendu-prozesu larria geldiarazi dela pentsa daiteke. Hain zuzen ere, diktadura frankistaren garaiko desplazamendu-faserik nabarmenean mugatuta geratu zen familia-eremutik hasi eta hainbat funtziotara zabaldu da,

hala nola, administrazio publikora, hezkuntzara, komunikabideetara, musikara eta literaturara (Zarraga, 2010).

Gaur egungo egoera soziolinguistikoari erreparatuz gero (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Eusko Jaurlaritzak 2016an argitaratutako ikerketan oinarrituta), Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleriaren % 33,9 euskalduna da, % 19,1ek euskara ulertzen du baina ezin du hitz egin eta % 47k ez du euskaraz hitz egiten ez ulertzen. Era berean, nabarmentzekoa da euskaldun kopuruaren banaketa desberdina dela Euskal Autonomia Erkidegoan: Gipuzkoa da euskaldunen ehuneko handiena duen lurraldea (% 50,6), gero Bizkaia (% 27,6) eta azkenik Araba (% 19,2). Izan ere, azken urteotan agerikoa da gazteen euskalduntzea eta erdaldun elebakarren ehunekoaren jaitsiera orokorra. Hortaz, euskaldunen hazkundea gazteenetatik ari da zabaltzen.

Hala ere, Soziolinguistikako Klusterrak UPV/EHUekin (2021) batera egindako UPV/EHUko zenbait fakultatetan (ikus 1. irudia) hizkuntzen erabilera neurtzeko ikerketak ez ditu VI. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitza berak erakusten. Gipuzkoako Campuseko fakultateek indize altuenari eusten dioten bitartean, euskararen erabilerrari buruzko daturik baxuenak Bizkaiko Campuseko fakultateetan jasotzen dira. Bizkaiko Hezkuntza Fakultateari dagokionez, egindako neurketak atzetik kontatzen hasita hirugarren postuan kokatzen du (% 12,1), hain zuzen ere, Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen (% 10,7) eta Bilboko Ingeniaritza Eskolaren (% 6,6) gainerik soilik. Era berean, aipatu behar da UPV/EHUko fakultateetan hizkuntza guztiekiko errespetuzko jarrerak bultzatzen direla, euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuen presentzia ere ikusi baita.



1. irudia. Euskararen erabilera orokorra, UPV/EHUko zenbait Fakultate, 2018-2020 (Soziolinguistika Klusterra eta UPV/EHU-tik hartua, 2021).

Ikusi bezala, gure fakultatean arnasten den giro linguistikoak ez dio mesederik egiten euskararen erabilerrari. Hortaz, egoera soziolinguistiko honi aurre egiteko, UPV/EHUren

(2019) zeharkako gaitasunen katalogoa oinarri har daiteke. Hain zuzen ere, katalogo honetan “komunikazioa eta eleaniztasuna” aipatzen da, komunikazio-gaitasuna hezkuntza-esparruan garatu beharreko konpetentzia garrantzitsuenetakotzat definitzen duena.

Azkenik, hezkuntza arloari dagokionez, Bizkaian Lehen Hezkuntzako etapan matrikulatuta dauden 63.072 ikasletik, 1.996 ikasle (% 3,2) daude A ereduan matrikulatuta, 14.154 (% 22,4) B ereduan eta azkenik, 45.901 (% 72,8) D ereduan (Hezkuntza Saila, 2021).

## **2.2. Euskararen estandarizazio eta normalizazio prozesuak: ibilbide historiko laburra**

Euskararen historia zabala da. Jakina, euskarak askoz hedatuago egon zen garaiak ezagutu zituen, nahiz eta, mota guztietako arrazoi eta eraginak direla medio, bere espazio eta erabilera-eremuak murriztu diren denborarekin. Hala eta guztiz ere, oraindik bizirik dirau, desagertu ziren beste hizkuntza askoren aurrean (Zarraga, 2010).

Euskara ofiziala da Euskal Herrian eta Nafarroako eremu euskaldunean; Iparraldean, berriz, ez du estatus ofizialik (Goenaga, 2004). Gauzak horrela, euskararen bilakaera eta beste hizkuntza batzuekin duen bizikidetzak ulertzeko, erabakigarriak dira bai kokapen geografikoa, hizkuntza hori nagusiki erabiltzen diren bi hizkuntzen artean biltzen duena (gaztelania eta frantsesa), bai egoera historikoa bera ere.

Egoera historikoari erreparatu aurretik, garrantzitsua da aipatzea Europako hizkuntza zaharrena, seguruenik, euskara dela (Zarraga, 2010). Koldo Mitxelena hitzetan, “El verdadero misterio del euskara es su pervivencia” (Mitxelena, d.b., Garabide Elkarteak aipatua, 2010, 19. or.). Hala ere, arestian aipatutako autoreak ez ezik, badaude bere baieztapenaren alde egiten duten beste batzuk ere. Honen adibide gisa, Alvarez (2016) historialaria dugu. Aditu honen arabera, euskararen funtsezko ezaugarria honako hau da: historian zehar izan dituen zailtasunei aurre egiteko gaitasuna. Izan ere, XX. mendea horren erakusle izan zen.

Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) eragin handia izan zuen garaiko gizartean, eta euskararen estandarizazio prozesu zailaren geldialdia ekarri zuen (Larrea eta Bilbao, 2010). Diktaduraren etorrerarekin, euskarak gainbehera ekarri zuen. Hain zuzen ere, garai horrek Bigarren Errepublikaren (1931-1939) lehen urteetan garatutako deszentralizazio-proiektua deuseztatu zuen, eta birzentralizatzeko hizkuntza-politika bat ekarri zuen berarekin. Horren ondorioz, estatu mailako eskoletan gaztelania bakarrik izendatu zen ofizial, estatuko gainerako hizkuntzen presentzia murriztuz (Sanz eta Rabazas, 2020).



Euskara hiltzorian zegoen, baina diktaduraren gogortasun horiek estandarizazio-prozesua abiarazi zuten. Estandarizazioa eremu publikoan erabiltzeko hizkuntza baten kodeari buruzko esku-hartzeen multzoa da (Zabaleta, 2019), hizkuntza-normalizazioa izeneko plan zabalago baten barruan zentzua hartzen dutenak (Giralt eta Nagore, 2018). Hain zuzen ere, hizkuntza estandarra, hizkuntza naturala oinarri hartuta, artifizialki prestatuturiko forma edo aldaera da (Martínez, 2010), akademia batek edo prestigiozko erakunde batek ezarria (Zarraga, 2010).

Gurera etorrita, prestigiozko erakunde hori Euskaltzaindia da. Euskaltzaindia, euskara zaintzeko, aztertzeko, zabaltzeko, batzeko eta hobetzeko betebeharra duen euskararen akademia ofiziala da (Goenaga, 1999), 1919. urtean sortu zen, bere egiteko nagusien artean euskararen estandarizazioa izanda (Larrea eta Bilbao, 2010). Izan ere, funtsezkoa izan zen euskara batzeko eta arautzeko prozesuan. Erakunde horri esker, euskara batu onartu zen (Goenaga, 2000), desagertzeko arriskuan zegoen hizkuntza bat salbatzeko bide bakarra izango zelakoan. Euskaltzaindiak euskara batuari bere onespene eta babesari eman zion 1968an Arantzazun egindako batzarrean (Zuazo, 1988).

Euskaltzainek emandako arauak betetzen ote ziren ikusi eta zein arazo zeuden aztertzeko xedearekin, hamar urte beranduago berriro batzartzea eta balantzea egitea erabaki zuten. Hortaz, 1978. urtean Bergarako biltzarra ospatu zen, hamar urte lehenago Arantzazuko biltzarrean erabakitakoak arrakasta izan ote zuen aztertzeko. Honako hau izan zen ateratako ondorio argia: gutxienak ziren estandarren aurkakoak eta horrenbestez, euskara batuak ez zuten atzerabiderik (Zuazo, 1988).

Hala ere, ez da nahikoa hizkuntza baten forma estandarra izatearekin; jendeak hitz egitea ere beharrezkoa da. Arantzazuko batzarrean euskaltzainburu izan zen Lekuonaren esanetan: “Euskera teoriaratu batu degu, laburtu degu, errextu degu. Euskera elementala sortu degu: errextu idatzi dedin, errextu irakurri dedin, errextu ikasi dedin. Idatzi, irakurri, ikasi... Ortan dago orain lana” (Lekuona, d.b., 1. or.).

Normalizazio-prozesua mugimendu juridiko batekin hasi zen Espainian; zehazki, Espainiako Konstituzioa argitaratu zenean. Hain zuzen ere, Espainiako estatuko hizkuntza ofizial gisa finkatu zuen gaztelania 1978ko Espainiako Konstituzioak, tokian tokiko hizkuntzen patua erkidego bakoitzaren borondate eta estatutuen esku utziz. Horrela, estatuko erakunde guztiak inplikatzeko dituen plurilinguismo eraginkorra lortzeko konpromisoan, errealitate plurinazionalaren aitorpen gisa (BOE, 1978).

Agindu horrek Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa ekarri zuen. Lege horrek euskararen ofizialtasunaren adierazpena ezartzen

du, 6. artikuluan islatzen den bezala: “El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas” (3/1979 Lege Organikoa, 29357. or.).

Aipatutako eskumenak direla medio, Eusko Legebiltzarrak 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zuen, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa. Lege hori oinarrizko zutabea izan zen Euskal Herriko hizkuntza eta kultura berreraikitzeo, eta orain arte ezezagunak ziren baliabideak, laguntzak eta ahaleginak ekarri zituen berarekin: “[...] se adoptarán las medidas oportunas y se arbitrarán los medios necesarios para garantizar de forma progresiva el ejercicio de este derecho” (10/1982 Oinarrizko Legea, 3141. or.).

Gaur egun, euskara hazkunde eta indarberritze prozesu bat ezagutzen ari da, bere hedapen eta normalizazio soziala helburu duena. Hori hizkuntza-estandar bat sortzeari esker da. Hala ere, esan dezakegu hizkuntza estandarrak eboluzionatzen jarraituko duela urteetan zehar, hizkuntza sistema estokastikoa baita, eta, beraz, etengabeko eboluzioan dago, hori baita hizkuntza bizirik egotearen erakusgarri. Izan ere, gizarte-aldaketek, kultura-faktoreekin batera, eragina dute hizkuntzan:

Sistema ez-linealen ezaugarriak behinena da osotasuna ez izatea osagaien batura; osagaien arteko erlazioek markatzen dute sistemaren funtzionamendua. Sistema hauetan emaitzak, muga batzuen artean kokatzen diren arren, zail izaten dira aurreikusten. Sistema hauek estokastikoak dira, euren portaera aukera posibleetan hartu den ibilbidearen arabera da. (Eguskiza eta Gaminde, 2022, 32. or.)

### 2.3. Hizkuntza ereduak eskolan

Arestian aipatu bezala, 1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuak euskararen ofizialtasuna ezarri zuen. Ildo horretatik, Euskararen Erabilera Arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak jarraibide sendo eta eraginkorrak eskaintzen ditu irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko. Lege honen helburu nagusia bi hizkuntza ofizialen egoera orekatzea zen, euskararen egoera, zalantzarik gabe, gaztelaniarena baino askoz makurragoa zela kontuan hartuta.

Hezkuntza arloan, lege-egoera berri honi esker, Hezkuntza eta Kultura Sailaren uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena:

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco establece que el euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y que todos los habitantes tienen derecho a conocer y usar ambas lenguas.

Por otra parte, dispone también que las Instituciones comunes a la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad sociolingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento. (138/1983 Dekretua, 2471. or.)

Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua indarrean ezarri ondorengo egoerari esker, legeak hiru eredu definitzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitate soziolinguistikoan: “El uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria se hará tomando como referencia los modelos de enseñanza bilingüe A, B y D” (138/1983 Dekretua, 1983. or.).

A ereduan, irakasgai guztiak –euskara izan ezik– gaztelaniaz ikasten dira (138/1983 Dekretua). 2016-2017 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 5,09a eredu horretan zegoen matrikulatuta; 2021-22 ikasturtean, aldiz, % 3,16 (Hezkuntza Saila, 2021). Bestalde, B ereduan, gaztelaniaz eta euskaraz ikasten da. Horrela, gaztelania, printzipioz, irakurketa, idazketa eta matematika bezalako irakasgaietarako erabiltzen da; euskara, ordea, gainerako irakasgaietarako (138/1983 Dekretua). 2016 urtean eredu horretan zeuden ikasleen kopurua % 25,37 zen, aurrean % 22,44 (Hezkuntza Saila, 2021). Azkenik, D ereduan, irakasgai guztiak –gaztelania izan ezik– euskaraz eskaintzen dira (138/1983 Dekretua). Orain dela 5 urte eredu honetako ikasleak % 68,19 ziren; egun, ordea, % 72,78 (Hezkuntza Saila, 2021).

Aipatutako emaitzek baieztatzen dute D ereduko ikasle kopurua handitu den neurrian A eredukoa jaitsi egin dela. Beraz, momentu honetan hizkuntza ereduari dagokionez, D ereduan ikasleen gehiengo handiena dago matrikulatuta, eta ondorioztatu daiteke ezagutza handitu dela.

#### **2.4. Hizkuntza jarrerak eta erabilera**

Gaur egun ere, ia aho batez onartzen da faktore afektiboek eragina dutela hizkuntza bat eskuratzeko edota ikasteko prozesuan (Barrios, 1997; Bonilla eta Díaz, 2019). Batik bat, erabakigarria da jarrerak eta motibazioak jokatzen duten papera. Izan ere, aldagai horiekiko interesa sortzen da aldagai kognitiboek ez dutelako beren kabuz hizkuntza bat ikastea bezain konplexua den prozesua azaltzen (Madariaga, 1994).

Alde batetik, hizkuntza-jarrerari buruz ari garenean, zehazki, “hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera”-ri buruz ari gara (Joly eta Uranga, 2010, 207. or.). 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren datuei erreparatu, euskararen aldeko jarrerak ugaritu egin dira EAEn. Honen arabera, biztanleen % 65 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 25,8 ez alde ez aurka eta % 9,3 aurka.

Hezkuntza-testuinguruari erreparatuta, nabarmena da dimentsio afektiboarekin zerikusia duten alderdiak baztertuta geratzen direla askotan. Gardnerrek (1985) hizkuntza-jarrerak hizkuntza baten ikaskuntzan duten funtsezko eginkizuna azpimarratzen du. Egile horren arabera, harreman estua dago hizkuntza bateko errendimenduaren eta hizkuntza horrek

ordezkutzen duen kultura eta taldearen aldeko jarreraren artean. Beraz, ikuspegi horretatik, nekez izango da ikasketa linguistiko egokia subjektuek kasuan kasuko hizkuntzaren aldeko jarrerarik ez badute, izan ere, elkar baldintzatzen dute eta biak kausa eta ondorio dira aldi berean (Janés, 2006). Testuinguru horretan, beste autore batzuek, Bakerrek (1992) adibidez, adierazi dute jarrerak ez direla heredatzen, ikasi egiten direla eta aldatzeko modukoak direla.

Euskararen erabileraren tipologia aztertuz, EAEko biztanleen % 30,6k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean. Gainerakoek (% 69,4), ordea, erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Azkenik, kontuan hartu beharrekoa da multzo txiki bat badela (% 6,1), oso gutxitan bada ere, euskara ere erabiltzen duena (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Eusko Jaurlaritz, 2016).

Euskararen jarreraren eta erabileraren inguruko datu estatistikoak aztertu ondoren, disonantzia kognitiboa deritzona antzematen da. Horrek pertsona batek dituen uste eta desira adierazien eta bere hizkuntza-jardueraren arteko desorekari egiten dio erreferentzia (Martínez de Luna, 2003).

## **2.5. Motibazioa eta ikasteko estrategiak: jarrerekin zuzeneko lotura duten aldagaiak**

Aldagai afektibo guztien artean, Gardner, Lambert eta Ausubel bezalako egileek atzerriko hizkuntza baten irakaskuntzan garrantzitsutzat jotzen duten faktoreetako bat, besteak beste, motibazioa da. Izan ere, parametro honen azterketan irudi adierazgarriena Robert Gardner psikologo kanadiarrarena da. Egile honen definizioari jarraituz, hizkuntza bat ikasteko motibazioa eraikuntza-konplexu gisa deskriba daiteke, eta horrek berekin dakar hizkuntza ikasteko ahalegina, hizkuntza ikasteko helburua lortzeko nahia eta hizkuntza ikastearen aldeko jarrerak uztartzea (Gardner, 1985).

Gardner, Lambert bere kolaboratzaile handietako batekin batera, konturatu zen motibazioak eta jarrerak paper garrantzitsua betetzen dutela hizkuntza baten ikaskuntzan, hainbestera non emaitza gutxi gorabehera arrakastatsua izatearekin lotuta dagoen. Halaber, bi autore horiek hizkuntza baten ikaskuntzarekin lotzen diren bi motibazio-mota handi bereizten dituzte: integratzailea eta instrumentala (Gardner eta Lambert, 1972).

Motibazio integratzaileak, alde batetik, norbanakoak bere hizkuntza-komunitatearen ordezkari izateko duen borondatea edo nahia islatzen du (Gardner eta Lambert, 1972). Beraz, komunitate horrekin komunikatzeko hizkuntza ikasteko egiten den ahaleginaren maila islatzen du. Gardnerren (1982) hitzetan, hizkuntza ikasteko interesak eta xedeak hizkuntzaren komunitatearekiko jarrera islatzen ditu. Aitzitik, motibazio instrumentalaren ezaugarria

hizkuntza bat onura pragmatiko eta erabilgarriak lortzeko ikasteko interesa da (Gardner eta Lambert, 1972), hala nola titulu bat lortzeko edo lan-eskaintza baten baldintzak betetzeko.

Hizkuntza baten ikaskuntzan motibazioak duen garrantzia aitortzen duen beste egileetako bat Ausubel (1968) da. Egile horrentzat ez dago ikaskuntzarik, egitura kognitiboa eta hezitzailearen jarrera afektiboa eta motibaziozkoa kontuan hartzen ez bada (Torres, 2003). Ikuspegi horri esker, arreta- eta motibazio-faktoreak sartzen dira ikasteko ezinbesteko baldintza gisa. Beraz, teoria horrek jarrerazko aldagaiek ikaskuntzan berebiziko garrantzia hartzen dutela bermatzen du.

Nolanahi ere, hizkuntzen irakaskuntzan ohikoa da arrakasta ikaslearen motibazio-mailari estuki lotuta egotea. Gainera, Curtisen (2020) arabera, hizkuntza baten kultura miresten dutenek gogo handiagoa izango dute hizkuntza hori erabiltzen den gizarte batean integratzeko. Beraz, oso garrantzitsua da, irakasle gisa, ikasleen motibazioa lortzen saiatzea, hizkuntzaren ikaskuntza esanguratsua lortu eta erabiltzeko zein sustatzeko gogoia eskura dezaten.

Hori lortzeko, oso garrantzitsua da ikasleen autonomia sustatzea, formakuntza integralaren osagaitzat hartzen baita. Izan ere, autonomia estuki lotuta dago hizkuntza bat eskuratzeko ikaskuntza-estrategiak ezartzearekin, eta estrategia horiek komunikazio-gaitasuna garatzen laguntzen dute (Orrego eta Díaz, 2010). Ikasteko estrategiak planifikatutako ekintzak dira, helburu espezifikoak lortzeko abiarazitakoak (Bernard, 1996, Díaz eta Quirozen aipatua, 1998). Esandakoari gehituz, Oxfordek (1990) dio, ikasleak hizkuntza baten ikaskuntzan estrategiak ezartzen dituenean, nabarmen hobetzen duela bere trebetasun maila, eta, beraz, hizkuntzaren aldeko motibazioa eta jarrerak.

### 3. Helburuak eta hipotesiak

Burutuko den ikerketaren helburu orokorra eta helburu zehatzak jarraian aurkezten dira. Honekin batera, planteatutako hipotesiak ere aipatzen dira.

Ikerketa honen helburu orokorra honako hau da **(HO)**: Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslegaien euskararen erabileraren eta jarreraren arteko korrelazioa aztertzea, batetik autokontzeptua eta bestetik ikasteko estrategiak eta motibazioa bezalako faktoreek zer nolako eragina duten aztertuz.

Helburu zehatzei erreparatuta, honako hauek dira:

**HZ1:** Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslegaien autokontzeptuaren, ikasteko estrategien eta motibazioaren, erabileraren eta jarreraren tendentziak deskribatzea.

**HZ2:** Ikergai diren lau aldagaien arteko korrelazioak aztertzea.

Azkenik, helburu orokorretik abiatuta, lan honen hipotesia, hots, ikerketa zientifikoaren bidez aurrerago egiaztatu edo ezeztatuko dugun aurreikuspena, honako hau da (**H1**): Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasleak zenbat eta autokontzeptu eta motibazio maila altuagoa izan, ikasteko estrategia egokiagoak baliatu eta aldeko jarrerak erakutsi, orduan eta gehiago erabiliko dute euskara.

#### **4. Metodologia**

Atal honetan, helburua erdiesteko jarraitutako metodologia ezagutzera emango da. Hain zuzen ere, datuak jasotzeko metodologia eta datuak aztertzeko metodologia.

##### **4.1. Datuak jasotzeko metodologia**

Atal honetan ebaluazio kuantitatiboa ulertzen laguntzen duten hainbat atal aurkezten dira. Lehenik eta behin, ikerketa egiteko erabili den lagina azalduko da, analisirako erabilitako ebaluazio-tresnarekin batera. Azkenik, datuak biltzeko egindako prozesua azaltzen da.

###### **4.1.1. Lagina**

Ikerketa honetan Euskal Herriko Unibertsitateko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Lehen Hezkuntzako graduako 105 irakasleak hartu dute parte (ikus 10.1. eranskina), 93 neskek eta 12 mutilek. Horietatik, 4 ikasle 1. mailakoak izan dira, 62 ikasle 2. mailakoak, 14 ikasle 3. mailakoak eta azkenik, 25 ikasle 4. mailakoak. Zonalde geografikoaren arabera, 21 ikasle euskararen presentzia handiko eremuetan hazi dira, eta 84 tarteko eremuetan edo eremu mistoetan. Bestalde, informatzaileen ama hizkuntzari erreparatuta, 73 ikaslerena gaztelania izan da, 29 ikaslerena euskara, eta 3 ikaslerena, ordea, gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat. Azkenik, eredu linguistikoa kontuan hartuta, 3 ikasle A ereduan matrikulatutakoak izan dira, 21 ikasle B ereduan matrikulatutakoak eta 81 ikasle D ereduan matrikulatutakoak. 51 ikaslek euskarazko C1 agiria dute, 53 ikaslek B2 maila eta ikasle batek B1 agiria.

Beste aldetik, proposamenean aurkezten den bideoa egiteko (ikus 6. azpiatala) bideo-grabazioak egin dira ikerketan parte hartu duten 6 parte-hartzaileekin. Parte-hartzaileei euren testigantzak, sentimenduak eta sententzioak kontatzeko eskatu zaie eta bideoan jaso dira. Euren oniritzia jaso da momentu oro (ikus 8. atala); horretarako, baimen-orri bat (ikus 10.2. eranskina) helarazi zaie sinatu dezaten, irudia eta audioa grabatzeko eta lan honetarako erabiltzeko onespina jasotzeko.

#### 4.1.2. Tresnak

Ikerketa hau aurrera ateratzeko asmoz, tresna espezifikoko batzuk erabili dira. Hain zuzen ere, azterketa honen helburua deskribatzailea eta esploratzailea izanda, datu kuantitatiboak lortzea ahalbidetzen duten tresnak erabili dira.

Informazioa biltzeko metodo gisa, beste ikerketa batzuk erreferentziatzen hartuta (esaterako, ikusi Urtzi Ruiz de Azuaren lana, 2013) ikerketa honetarako beren-beregi galdetegi<sup>1</sup> egituratu eta itxi bat diseinatu da euskararen erabilera eta jarrerari buruzko informazioa biltzeko, inkestatuen autokontzeptua, ikasteko estrategiak eta motibazioa kontuan hartuta. Galdetegiaren bloke nagusiak 4 dira: (A) autokontzeptua, (B) ikasteko estrategiak eta motibazioa, (C) erabilera eta (D) jarrerak. Emaitzetan letrek blokeak adieraziko dituzte, eta zenbakiak, aldiz, itemaren zenbakia.

Inkesta *Likerten* eskalan oinarritu da. 4 blokeetan bereizitako 54 item proposatzen dira (ikus 10.3. eranskina), eta inkestatutakoek alde aurretik definitutako 3 mailaren bidez adierazi behar dute adostasun- edo desadostasun-maila, bi era ezberdinetan aurkeztuta: erabat desados, ez ados ez desados eta erabat ados, edo gehienbat gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean, gaztelaniaz zein euskaraz eta gehienbat euskaraz. Item bakoitzari zenbakizko balio bat esleitu zaio, positiboa zein negatiboa (Fabila, Minami eta Izquierdo, 2012); zehazki, A2, A4, A5, A6, A8, A9, A12, B8, B9, B12, D4, D5, D8, D10, D16, D18 eta D19 dira item negatiboak. Kodifikazio horrek guztizko puntuazioa emango dio subjektu bakoitzari, eta, ondoren, lortutako datuak aztertzeko eta interpretatzeko aukera emango du.

Bestalde, inkestaren datu horiek bildu eta aztertu ondoren, elkarrizketa pertsonalak egitea planifikatu da bideoa egiteko. Izan ere, irakaslegaien arazo eta kezka nagusiei ahotsa emate aldera, dibulgaziorako bideo bat osatzeko erabili dira. Bideo grabazio horiek ordenagailura irauli dira, eta bideo muntaia macOSentzako iMovie edizio-softwarearen bidez burutu da.

#### 4.1.3. Prozedura

Galdetegia hiru hilabetez egon da zabalik jendeak erantzun zezan. Denbora hori pasatu ostean, galdetegiari amaiera eman zaio eta datuak aztertzeari ekin zaio (ikus 4.2. azpiatala). Denbora tarte horretan, inkesta bi bideren bidez zabaldu da: Fakultateko irakasleen bidez, klasean galde-sorta erantzuteko tarte bat eskainiz, edo, zuzenean, ikasleen bitartez.

---

<sup>1</sup> Galdetegia: <https://forms.gle/w2ZVqooGwa2nF1886>

Parte hartzea boluntarioa izan denez gero, prestutasuna erakutsi duten ikasleek galdetegiari modu anonimoan erantzun diote; une oro datuen babeserako araudia errespetatu da (ikus 8. atala). Konkretuki, hauek izan dira ikasleek galdetegian adierazi dituzten datu pertsonal bakarrak: jaiotze data, generoa, gradua, ikasturtea, ama hizkuntza, zonaldea, ikasketak zein eredu-linguistikotan egin dituzten eta euskara maila.

### 4.2. Datuak aztertzeke metodologia

Datuak jaso ostean, galdetegiari eratorritako galderen erantzunak kalkulu orri batera irauli dira eta oinarritzko matrizea osatu da. 2. irudian erakusten da matrizearen zatia adibide gisa.

	A1	A2	A3	A4	A5	A6	A7	A8	A9	A10	A11	A12	A13	A14	B1	B2	B3
1	1	2	3	2	3	2	3	3	3	2	1	3	2	2	3	3	3
2	3	1	3	1	2	3	1	3	3	3	3	1	3	3	3	3	3
3	2	3	2	1	3	2	3	2	3	3	2	3	3	3	3	3	3
4	2	3	2	3	3	2	3	3	3	3	3	2	3	3	3	3	3
5	3	3	2	3	3	3	3	3	3	3	2	2	3	3	3	3	3
6	2	2	3	3	2	2	3	2	3	3	3	3	1	2	2	3	2
7	1	2	2	1	3	2	2	2	3	3	3	3	2	2	1	2	2
8	2	3	2	2	3	3	3	3	3	3	3	3	2	2	2	3	2
9	3	3	2	3	2	3	2	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
10	1	2	2	2	1	3	2	2	3	3	2	2	2	2	3	2	3
11	3	3	2	3	3	2	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
12	1	1	2	2	1	2	2	3	3	3	2	2	2	1	3	3	1
13	1	1	1	2	2	2	1	3	3	2	3	1	2	2	3	3	2
14	3	2	3	2	2	1	3	3	3	3	3	2	2	2	1	1	2
15	3	1	2	1	2	2	3	3	3	3	1	1	3	3	3	3	3
16	1	2	2	2	3	3	2	3	3	3	2	2	3	3	3	3	3
17	1	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
18	2	3	1	3	3	2	3	3	3	3	2	3	2	2	2	3	3
19	3	1	3	2	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
20	2	3	2	3	3	3	3	3	3	3	1	3	3	3	3	3	3
21	2	1	3	2	1	2	2	2	2	2	3	2	1	1	2	2	2
22	1	2	3	2	3	1	2	3	2	2	2	3	2	3	2	3	3
23	1	2	2	2	2	3	2	2	3	3	3	2	3	3	3	3	2
24	2	3	3	2	3	2	3	3	3	3	3	3	3	3	3	2	3
25	1	3	2	2	1	2	2	2	3	1	2	1	2	2	2	1	1
26	3	3	2	3	3	2	2	3	3	3	3	3	3	3	2	3	3
27	1	3	1	1	2	1	3	3	3	3	3	3	2	3	2	2	2

2. irudia. Datu basearen zatia.

Itemak lau bloketan banatu dira —autokontzeptua, ikasteko estrategiak eta motibazioa, erabilera eta jarrerak— koloreka, analisisia errazteko. Era berean, 4.1.2 sekzioan aipatu den bezala, azpimarratu beharra dago item batzuk negatiboak direla, eta, beraz, balioei buelta eman zaiela; hau da, negatiboak positibo bihurtu dira.

Datuak aztertzeke, R lengoia estatistikoa erabili da. Datuak kaxa-grafikoen bidez irudikatu dira. Irudikapen horrek bost elementu ditu: balio minimoa, lehen kuartila (Q1), bigarren kuartila (Q2), hirugarren kuartila (Q3) eta balio maximoa; elementu horiek lau multzotan banatzen dituzte datuak, kuartilen arteko tarte izenekoak (Johnson eta Kuby, 2012). Kutxa nagusiak datuen % 50a biltzen du —bere mugak lehen eta hirugarren kuartilei dagozkie— (Seoane et al., 2007). Aldi berean, irudikapen grafiko horrek joera zentralerik neurri bat aurkezten du (mediana) eta banaketaren simetria edo asimetria adierazten du (Johnson eta Kuby, 2012). Muturreko balioak, outlier izenekoak, puntuen bidez adierazten dira (Seoane et al., 2007).

Hurrengo urratsa izan da muturretako erantzunak —balorerik altuenak eta baxuenak— izan dituzten irakaslegaiak (outliers) identifikatzea. Datu horiek laginetik kanpo geratuko dira,



baina ez ikerketatik; izan ere, estimazioen zehaztasuna eta proben sentsibilitatea ahalbidetuko dute (Diaz, 2009).

Bukatzeo, autokontzeptuak, euskara ikasteko motibazioak eta ikasteko estrategiek, erabilerarekin eta jarrera linguistikoekin mantentzen duten erlazioa deskribatzea da. Datuen normaltasun eza konprobatuta, Spearmanen proba ez parametrikoa erabili da; hots, datu parekatuen arteko erlazio baten indarraren neurri estatistikoa (Restrepo eta Gonzalez, 2007). Korrelazioak egiaztatzeo modurik egokiena dispertsio-diagramak dira (Lalinde et al., 2018) eta datuak grafikoki irudikatzeo erabili dira.

Dispertsio-diagrama batek bi aldagai nola erlazionatzen diren iradokitzen digu, hau da, erlazioa lineala edo bestelakoa den. Horrek korrelazio-koefizienteak interpretatzen laguntzen digu. Muturreko balioak ere erakusten dizkigu, kasu batzuetan korrelazioaren koefizientearen gehiegizko eragina dutenak (Castro, 2008). Diagrama kartesiar gisa irudikatzen da (Castro eta Bernabeu, 1995) eta puntuen planoko konfigurazioak joera bat erakusten du. Joera horrek bi aldagaien arteko erlazioaren mota eta intentsitatea adierazten ditu. Batzuetan, puntu gehienak lerro zuzen baten inguruan multzokatzeko joera izaten dute (Castro, 2008).

## 5. Emaitzak

Behin datuak zelan aztertu diren eta zelan interpretatu diren azaldu ostean, atal honetan emaitzak aurkeztuko dira. Ikerketa honetan euskararen erabileraren eta euskararekiko jarreraren arteko aldeak aztertzen dira, batetik autokontzeptuak eta bestetik, ikasteko estrategiek eta motibazioak zer-nolako eragina duten aztertuz.

### 5.1. Autokontzeptua


Hizkuntzekin lotutako autokontzeptu akademikoaren emaitzen batezbestekoak 1. taulan erakusten dira. Datuen arabera, % 72,05ek autokontzeptu positiboa aurkezten du, eta % 4,98k, berriz, autokontzeptu negatiboa izatearen zantzuak ditu. Beraz, gehiengo handienak beren errendimenduaren irudi ona erakutsi du inkestan aztertutako arloetan.

	<b>Batezbestekoa (%)</b>
Erabat desados	% 4,98
Ez ados ez desados	% 22,97
Erabat ados	% 72,05

**1. taula.** Autokontzeptuaren batezbestekoak (%).

3. irudian autokontzeptuaren blokean bildutako datuen hedadura ikus dezakegu. 17ko tartean (H = 17), 42 da balio handiena eta 25 txikiena, ikus dezakegu kasuen % 50a —kutzaren barruan daudenak (Q1 eta Q3 arteko distantzia)— 31 eta 38 artekoak direla. Erdibitzailea

joera zentralerako neurri gisa ulertzen badugu ( $Me = 36$ ), gure espektroaren goiko muturretik gertuago dago. Datu horiek grafikoaren asimetria adierazten dute, nahiz eta goragoko joera oso esanguratsua ez izan.



3. irudia. Autokontzeptua.

Ondoriozta daiteke laginaren erdiak baino gehiagok autokontzeptu-maila altua duela, batezbestekoa ( $\bar{X} = 33,5$ ) gaindituz. Gainera, mediana erreferentzia-puntutzat hartuta, datuak gehiago kontzentratzen dira grafikoaren goiko aldean, eta horrek esan nahi du inkestatuen ehuneko handiagoa bat datorrela aldeko erantzunekin.

Bestalde, aipatu behar da Q3tik gorako datuak ama hizkuntza euskara duten irakaslegaei dagozkiela; irakaslegai horiek aurkezten dute hizkuntzarekiko autokontzeptu mailarik handiena inkestetan. Hala ere, erantzun gehienak —kutxan kontzentratuta— ama-hizkuntza gaztelania dutenei dagozkie. Horrek erakusten du, euskara haien bigarren hizkuntza (L2) izan arren, autokontzeptu-maila nahikoa positiboa dutela, oro har.

Autokontzeptuaren multzoan lortutako emaitzak ulertzeko, item bakoitza arretaz aztertuko dugu. Item bakoitzaren ehunekoak 2. taulan eskaintzen dira desglosatuta.

Item	Erabat desados	Ez ados ez desados	Erabat ados
A1	% 36,19	% 29,52	% 34,29
A2	% 55,24	% 22,86	% 21,90
A3	% 14,29	% 47,62	% 38,10
A4	% 47,62	% 32,38	% 20,00
A5	% 58,10	% 31,43	% 10,48
A6	% 38,10	% 44,76	% 17,14
A7	% 6,67	% 27,62	% 65,71
A8	% 76,19	% 19,05	% 4,76
A9	% 87,62	% 12,38	% 0,00
A10	% 3,81	% 7,62	% 88,57
A11	% 6,67	% 28,57	% 64,76
A12	% 64,76	% 20,00	% 15,24
A13	% 9,52	% 40,00	% 50,48
A14	% 5,71	% 33,33	% 60,95

2. taula. Autokontzeptuaren emaitzak (%).

Item positiboei dagokienez, % 36,19k ez du uste (A1) jarioetasun berarekin euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko gai denik, eta % 34,29k bai. Bestalde, % 38,10ek soilik diote (A3) beren izaerak beren hizkuntza-trebetasunak garatzeko aukera ematen diela. Ehuneko handi bat (% 65,71) balioduntzat jotzen da euskarazko hizkuntza-gaitasunari dagokionez (A7); % 6,67a, berriz, ez. Horrek eragina du (A10) unibertsitateko euskarazko lan eta azterketetan ondo moldatzean (% 88,57).

% 64,76k uste du hizkuntzak ikasteko balio duela (A11). Halaber, emaitza oso positiboak ikus ditzakegu honako item hauetan: “(A13) Euskara sustatzeko egiten ari naizen esfortsuarekin pozik nago” eta “(A14) Nire euskara gaitasuna hobetzeko egiten ari naizen esfortzuarekin pozik nago”. Adostasun-ehunekoak % 50,48 eta % 60,95 dira, hurrenez hurren.

Bestalde, item negatiboei dagokienez, % 21,90ek bere burua trakets ikusten du euskaraz hitz egiterakoan (A2). % 17,14k bakarrik dio jendaurrean euskaraz hitz egitean lotsa sentitzen duela (A4). Hala ere, datuen arabera, % 65,71k akatsak egiten ditu euskaraz hitz egitean eta idaztean (A5), baina % 4,76k bakarrik erakusten du zailtasunak dituela euskalkiak ulertzeko (A6). Ildo horretatik, % 4,76k uste du zaila egiten zaiola euskaraz moldatzea (A8). Azkenik, ehuneko handi batek (% 76,19) adierazten du euskararekin lotutako irakasgaietarako balio duela (A9), eta % 87,62k ez du uste azterketak edo lanak euskaraz egitean beste ikaskide batzuei baino okerrago ateratzen zaionik (A12).

## 5.2. Ikasteko estrategiak eta motibazioa


Puntuazio orokorrek emaitza positiboak adierazten dituzte (3. taula), % 73,46 aldeko erantzunak baitira eta % 4,11 kontrakoak. Beraz, zenbat eta puntuazio altuagoa lortu, orduan eta euskara ikasteko motibazio altuagoa adierazten da.

	<b>Batezbestekoa (%)</b>
Erabat desados	% 4,11
Ez ados ez desados	% 22,43
Erabat ados	% 73,46

**3. taula.** Ikasteko estrategien eta motibazioaren batezbestekoak (%).

Ikasteko estrategiei eta motibazioari dagokienez, datuek adierazten dute lagina, 16ko tartean dagoena ( $H = 16$ ), 28 eta 32 balioen artean kontzentratzen dela gehienbat. Datu horrek agerian uzten du erantzunen tartea nahikoa kontzentratua dela, eta, horren arabera, irakaslegaiak motibazio-maila eta ikaskuntza-estrategia antzekoak erabiltzen dituzte gehienbat; ama-hizkuntza euskara edo beste bat izan.

4. irudian, mediana (Me = 31) 3. kuartiletik hurbil dago (Q3 = 32); beraz, esan dezakegu erantzun gehienak kuartilen arteko tarte horretan kontzentratzen direla. Hala ere, datuen sakabanatze handiagoa aurki dezakegu kuartil arteko 4. eta 1. tarteetan. Era berean, ezohiko balioak aurki ditzakegu. Balio horiek, lerroaren muturretik haragoko puntu indibidualez adieraziak, outlier datu gisa katalogatzen dira.



4. irudia. Ikasteko estrategiak eta motibazioa.

Multzo honetan lortutako emaitzak ulertze aldera, item bakoitzaren ehunekoak 4. taulan desglosaturik eskaintzen dira.

Item	Erabat desados	Ez ados ez desados	Erabat ados
B1	% 5,71	% 32,38	% 61,90
B2	% 5,71	% 19,05	% 75,24
B3	% 7,62	% 25,71	% 66,67
B4	% 11,43	% 40,95	% 47,62
B5	% 9,52	% 36,19	% 54,29
B6	% 20,95	% 41,90	% 37,14
B7	% 0,95	% 5,71	% 93,33
B8	% 63,81	% 21,90	% 14,29
B9	% 48,57	% 22,86	% 28,57
B10	% 12,38	% 40,95	% 46,67
B11	% 5,71	% 27,62	% 66,67
B12	% 76,19	% 22,86	% 0,95

4. taula. Ikasteko estrategien eta motibazioaren emaitzak (%).

Ikaskuntza-estrategiei dagokienez, lortutako emaitzak oso positiboak dira. Inkestatuen ehuneko handi batek euskararekiko interesa erakusten du (% 75,24), eta horregatik ikasten eta praktikatzan du (B2). % 47,62k uste du ahal duen denbora guztia ematen duela hizkuntza menderatu nahian (B4). Lehen hizkuntza euskara duten inkestatuen ehuneko handiak eragina izan du emaitzan. Izan ere, % 11,43 bakarrik dago desados.

Bestalde, % 37,14k (B6) soilik erantzun du pazientziaz eta umore-sen onaz ikaskuntza-prozesuan sor daitekeen frustrazioaren aurrean. Era berean, % 14,29k bakarrik aitortzen du (B8) urduri jartzen dela euskarazko lanak edo azterketak egiterakoan. Beraz, “(B9) Euskaraz aurkeztu behar dudanean, bizkortu egiten da nire pultsua” itemaren ehunekoak, handiagoa bada ere, ez du ehuneko handiegirik erakusten. Haatik, (B10) jomuga irisgarriak finkatzen

dituzte euskara ikasten (% 46,67), eta horrek erraztu egiten die konstanteak izatea eta (B11) ikasketa alde batera ez uztea (% 66,67). Hori jasota dago “(B12) Euskara ikasten edo erabiltzen zapuzten naizenean, bertan behera uzten dut” itemean, eta horren datuek desadostasunaren % 76,19 adierazten dute.

Irakaslegaien motibazioari dagokionez, (B1) prestutasuna erakusten dute euskararen aldeko ahaleginak egiteko (% 61,90), eta (B3) euskara ikasteko eta praktikatzeko motibatuta sentitzen dira (% 66,67). Aldi berean, (B5) euskararen hedapenarekin eta jarraipenarekin inplikaturik sentitzen dira (% 54,29). Izan ere, etorkizuneko irakasleak izango diren heinean, (B7) haien etorkizuneko lanerako duten balioagatik garrantzitsua da haientzat euskara menderatzea (% 93,33).

### 5.3. Euskararen erabilera


Euskararen erabilerari dagokionez, % 28,21ek bakarrik erabiltzen du euskara gehienbat, gehienbat gaztelania edo beste hizkuntza bat erabiltzen duten % 48,21 baten aurrean. Emaitzak 5. taulan erakusten dira.

	Batezbestekoa (%)
Erabat desados	% 48,21
Ez ados ez desados	% 23,57
Erabat ados	% 28,21

5. taula. Euskararen erabileraren batezbestekoak (%).

5. irudiko grafikoan euskararen erabilerari dagozkion emaitzak aurkezten dira. 14ko tartean ( $H = 14$ ), kutxa 0 pertzentiletik hurbilago dago 100etik baino. Datu horiek berretsi egiten dute beste ikerketa batzuek ondorioztatu dutena; hau da, euskararen erabileraren beherakada.

Goiko besoan inkestatuen artean hizkuntza dezente erabiltzen duten pertsonak ageri dira. Datu horiek, beharbada, euskara ama hizkuntza dutenei dagozkie. Hala ere, gehienek hizkuntza gutxiago darabiltela diote. Izan ere, medianak ( $Me = 14$ ) ez du batezbestekoa gainditzen ( $\bar{X} = 16$ ); beraz, datu esanguratsua da Bilboko Hezkuntza Fakultateko (BHF) Lehen Hezkuntzako irakaslegaien artean euskararen erabilera eskasa adierazten duena.



5. irudia. Euskararen erabilera.

Ildo horretatik, nabarmentzekoa da mediana kutxaren erdian dagoela, erdiko neurriaren bi aldeetan lagin bera adierazita. Horrek banaketa uniforme adierazten du. Hain zuzen ere, agerian uzten du euskara dakiten baina eremu akademikotik harago erabiltzen ez duten ikasleen ehuneko handi bat dagoela.

6. taulan erakusten dira euskararen erabilerari dagozkien emaitzak itemez item ehunekotan.

Item	Gehienbat gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean	Gaztelaniaz zein euskaraz	Gehienbat euskaraz
C1	% 73,33	% 11,43	% 15,24
C2	% 4,76	% 23,81	% 71,43
C3	% 65,71	% 28,57	% 5,71
C4	% 13,33	% 22,86	% 63,81
C5	% 58,10	% 32,38	% 9,52
C6	% 43,81	% 29,52	% 26,67
C7	% 62,86	% 20,95	% 16,19
C8	% 63,81	% 19,05	% 17,14

6. taula. Erabileraren emaitzak (%).

Euskararen erabilerari dagokionez, eskuratu diren emaitzak negatiboak izan dira. “(C1) Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu etxean?” (% 73,33), “(C3) Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu unibertsitateko ikaskideekin?” (% 65,71), “(C5) Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?” (% 58,10), “(C6) Zein hizkuntzarekin sentitzen zara erosoan lan edo azterketa bat egiterakoan?” (% 43,81), “(C7) Zein hizkuntzarekin sentitzen zara erosoan hitz egiterakoan?” (% 62,86) eta “(C8) Zein hizkuntzatan pentsatzen duzu?” (% 63,81) bezalako kontuei erreferentzia egiten dieten itemetan gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean agertutako ehunekoak altuak dira. Irakasleekiko (C2) eta idazkaritzako langileekiko (C4) komunikazioarekin lotutako itemek bakarrik erakutsi dute euskararen erabilerari dagokionez ehuneko handiagoa, % 71,43 eta % 63,81 hurrenez hurren.


#### 5.4. Euskararekiko jarrerak

Euskararekiko jarreraren batezbestekoak 7. taulan erakusten dira. Datuen arabera, % 79,04k jarrera positiboak aurkezten ditu, eta % 3,39k, berriz, jarrera negatiboak izatearen zantzuak ditu. Ikus daitekeenez, irakasle gaiak puntuazio altua lortzea da joera.

	Batezbestekoa (%)
Erabat desados	% 3,39
Ez ados ez desados	% 17,57
Erabat ados	% 79,04

7. taula. Jarrerarekiko batezbestekoak (%).

Jarrerren blokearekiko datuen banaketa nahikoa esanguratsua da eta 6. irudian erakusten da. Alde batetik, nabarmena da lerroaren muturretik haragoko puntu indibidualez adieraziak dauden *outlier*-en presentzia. Bestalde, laginaren % 50 48 eta 53 balioen artean kontzentratzen da, eta horregatik kutxa txikia da. Inkestatuen artean euskararen aldeko jarrerren adierazle positiboaren erakusgarri da. Gainera, mediana (Me = 51) goiko muturretik pixka bat hurbilago dago.



6. irudia. Euskarareriko jarrerak.

Euskararekiko jarrerei dagokienez, 8. taulan erakusten dira itemen ehunekoaren desglosea.

Item	Erabat desados	Ez ados ez desados	Erabat ados
D1	% 0,95	% 7,62	% 91,43
D2	% 3,81	% 15,24	% 80,95
D3	% 1,90	% 12,38	% 85,71
D4	% 78,10	% 20,00	% 1,90
D5	% 81,90	% 17,14	% 0,95
D6	% 2,86	% 24,76	% 72,38
D7	% 5,71	% 20,00	% 74,29
D8	% 16,19	% 45,71	% 38,10
D9	% 31,43	% 36,19	% 32,38
D10	% 90,48	% 9,52	% 0,00
D11	% 2,86	% 29,52	% 67,62
D12	% 5,71	% 30,48	% 63,81
D13	% 11,43	% 25,71	% 62,86
D14	% 5,71	% 32,38	% 61,90
D15	% 0,95	% 9,52	% 89,52
D16	% 27,62	% 40,95	% 31,43
D17	% 0,95	% 7,62	% 91,43
D18	% 3,81	% 15,24	% 80,95
D19	% 1,90	% 12,38	% 85,71

8. taula. Jarrerrekiko emaitzak (%).

Azterketak erakusten duenez, irakaslegaien gehiengo handienak (D1) euskara hizkuntza polita dela uste dute (% 91,43), eta, beraz, euskaraz hitz egitea (% 80,95) eta jendea euskaraz entzutea (% 85,71) gustatzen zaie. (D6) hizkuntza horrek erakartzen ditu (% 72,38) eta (D7) erabilgarria dela uste dute (% 74,29). Hain da horrela, euskara (D11) euskaldun egiten gaituen hizkuntzat hartzen du erdiak baino gehiagok (% 67,62).

% 63,81ek uste du (D12) Euskal Herriko ume guztiek euskara ikasi behar dutela. “Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiteko behar-beharrezko ikusten dut euskara” itemari dagokionez, eztabaidak daude: % 31,43k aldeko erantzuna eman dute eta % 32,38k desadostasuna erakutsi du. Hala ere, % 62,86ren ustez (D13), ezinbestekoa da euskarazko gaitasun agiria eskatzea hezkuntza eremuan lan egiteko.


Hori esanda, (D14) irakasleen ardura da euskararen erabilera sustatzea (% 61,90), nahiz eta uste duten (D15) denok egin beharko genukeela esfortzua euskarak balio handiagoa izan dezan (% 89,52). Izan ere, (D17) Euskal Herriaren nortasunarentzat euskara bizirik mantentzea funtsezkoa dela (% 91,43) uste dute.

Bestalde, irakaslegaiak ez dute uste desatsegina denik (D4) euskara ikastea (% 78,10a), ezta (D5) euskaraz ikastea ere (% 81,90). Ez dute uste (D8) hizkuntza zailegia denik (% 38,10). Gainera, datuek ezeztatu egiten dute (D10) euskara ikastea alferrikakoa dela (% 90,48). Aldi berean, ez da (D16) ingelesa euskara baino baliotsuagotzat jotzen, nahiz eta % 31,43k uste duen (D18) munduan hizkuntza bakarra egotea egokia litzatekeela. Hala ere, ehuneko handi batek (D19) euskararen galera arazo moduan ikusten du (% 85,71).


### 5.5. Bloke ezberdinetako emaitzen arteko korrelazioak

Dispertsio-grafikoek bi aldagai nola erlazionatzen diren erakusten dute: X ardatzean aldagai bat jarritz eta Y ardatzean beste bat (Moore, 2005). Jarraian, xehetasunez aztertuko ditugu dispertsio-grafikoak, aldagaiek grafiko bakoitzean duten erlazio-indarra nabarmenduz.


Alde batetik, 7., 8., eta 9. grafikoek nahikoa erregresio lineal positiboa erakusten dute. Ikus ditzagun jarraian grafikoen irudiak eta ondoren azalpenak:



**7. irudia.** Autokontzeptuaren eta ikasteko estrategien eta motibazioaren arteko korrelazioa.



**8. irudia.** Autokontzeptuaren eta erabileraren arteko korrelazioa.



**9. irudia.** Ikasteko estrategien eta motibazioaren eta erabileraren arteko korrelazioa.


7. irudiari dagokionez, X ardatzean irakaslegaien autokontzeptuarekin lotutako datuak erakusten dira, eta Y ardatzean, ikasteko estrategiekin eta motibazioarekin lotutakoak. Sakabanatze-grafikoak erakusten du autokontzeptuaren balioek gora egiten dutenean




motibazioaren balioak ere areagotu egiten direla. Grafikokoan puntuak sakabanatuta agertzen dira ( $K = 0.666$ ), eta ez neurketa-lerroan kontzentratuta. Beraz, egindako ikerketak erakutsi du zenbat eta autokontzeptu altuagoa erakutsi orduan eta motibazio maila altuagoa erakusten dutela Lehen Hezkuntzako irakaslegaiek. Korrelazio hori estatistikoki esanguratsua da ( $p\text{-balioa} > 0.001$ ).

Gauza bera gertatzen da 8. eta 9. irudiekin. Lehenengoak euskararen erabileraren eta inkestaren autokontzeptuaren arteko lotura erakusten du ( $K = 0.614$ ), eta estatistikoki esanguratsua da ( $p\text{-balioa} > 0.001$ ). Bestek, aldiz, erabilera eta ikasteko estrategiak eta motibazioa korrelazionatzen ditu ( $K = 0.509$ ). Beste bi irudietako emaitzekin (7. irudia eta 8. irudia) alderatuta korrelazio txikiagoa du eta estatistikoki esanguratsu da ( $p\text{-balioa} > 0.001$ ). Hortaz, autokontzeptuaren balioak zenbat eta altuagoak izan, orduan eta altuagoak hizkuntzaren erabilera jasotzen duten balioak ere. Era berean, zenbat eta motibazio maila altuagoa izan eta ikasteko estrategia hobeak erabili, orduan eta euskara gehiago erabiltzen dute.


10., 11., eta 12. irudietako grafikoetako aldagaien artean dagoen korrelazioek, erakusten duten erlazio lineal positiboa aurreko irudietan bezain markatua ez bada ere, datuak kontzentratuago agertzen dira (5.4 sekzioan ikusi ahal izan dugun bezala).



**10. irudia.** Autokontzeptuaren eta jarreraren arteko korrelazioa.



**11. irudia.** Ikasteko estrategien eta motibazioaren eta jarreraren arteko korrelazioa.



**12. irudia.** Erabileraren eta jarreraren arteko korrelazioa.

10. irudian, autokontzeptuaren eta jarreraren arteko korrelazioa ( $K = 0.455$ ) erakusten da. Bigarrenean (11. irudia), aldiz, ikasteko estrategien eta motibazioaren eta jarreraren arteko erlazioa ( $K = 0.620$ ). Azkenik, 12. irudian erabileraren eta jarreraren arteko korrelazioa erakusten da ( $K = 0.449$ ). Grafikoez erakusten dutenez, hiru aldagai horien balioak areagotzeak euskararen aldeko jarreraren balioak areagotzea dakar. Hiru kasuetan aldeak estatistikoki esanguratsuak dira ( $p\text{-balioa} > 0.001$ ).


**5.6. Sumarioa eta ondorioak**

9. taulan ikerketa honen aldagaien emaitzen sumarioa erakusten da. Bertan ikus daitekeenez, autokontzeptuak, ikasteko estrategiek eta motibazioak eta jarrerak emaitza positiboak lortu dituzte gehienbat, eta erabilerak, ordea, emaitza negatiboak.

	+	-
<b>Autokontzeptua</b>	👍👍	
<b>Ikasteko estrategiak eta motibazioa</b>	👍👍	
<b>Erabilerak</b>		👎
<b>Jarrerak</b>	👍👍	

9. taula. Aldagaien emaitzen sumarioa.

Bestalde, aldagaien arteko korrelazioei dagokienez (A, B, C eta D blokeak), 13. irudian ikus daitekeen moduan, eragin edo korrelazio positiboa agertzen da kasu guztietan, dimentsio batean maila altua izateak bestean ere altua izatea dakarrelako. Gainera, 5.5. azpiatalean garatu den bezala, emaitza guztiak estatistikoki esanguratsuak dira, eta horrek dimentsioen arteko erlazioa azaleratzen du.



13. irudia. Aldagaien arteko korrelazioen sumarioa.

**6. Proposamena: kontzientziarako dibulgaziozko bideoa**

Proposamena irakaslegaien testigantzak jasotzean oinarritzen da, betiere diskurtsoaren azterketa kritikoan zentratuz. Horrekin lortu nahi dena da irakasleen diskurtsoak ikuspegi konparatu batetik hautematea eta ulertzea —euskaldun berrien eta euskaldun zaharren ikuspegiak kontuan hartuta, eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslegaiak gaztelania euskararen ginetik erabiltzera eramaten dituzten faktoreak hautematea. Horretarako,

dibulgaziozko bideo<sup>2</sup> bat sortu da gogoeta eta pentsamendu kritikoa sustatzen duen espazio gisa, UPV/EHUren (2019) zeharkako gaitasunen katalogoan aipatzen den “komunikazioa eta eleaniztasuna” konpetentzia oinarri hartuta. Horretarako, 6 parte-hartzaile boluntario hautatu dira, orain arte jasotako datuei ahotsa eta aurpegia emateko. Bideoa sortu eta zabaltzearen helburua euskarak Bilboko Hezkuntza Fakultatean gaur egun duen egoera ikusaraztea eta atzeraka doan egoera horren aurrean konponbideak planteatzea da 6 irakaslegai hauen begiradatik.

## 7. Ondorioak

Hurrengo lerroetan Gradu Amaierako Lanean garatutako ikerketaren emaitzak oinarri harturik, ondorio azpimarragarrienak mahaigaineratuko dira. Lehendabizi, aipatu beharreko ondorio nagusietako bat da Bilboko Hezkuntza Fakultatean jasotako euskararen erabilera eskasa. Ikerketa honetatik eratorritako emaitzen arabera, % 28,21ek soilik erabiltzen du euskara gaztelaniaren edo beste hizkuntzaren baten aurretik. Bildutako datuen emaitzek marko teorikoan azaldutako eta aztertutako teoriak agerian uzten dituzten ebidentzia batzuk erakusten dituzte (ikus 2. atala). Hala ere, azken urteetan egindako ikerketek —hala nola VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Eusko Jaurlaritza, 2016)— egiaztatu dute gaur egun euskararen ezagutza-maila handiagoa dela, baina azken urteetan hizkuntzaren erabilerak behera egin duela nabarmen.

Gizartean dagoen ezagutzaren hazkunde nabarmena aprobetxatu behar da. Izan ere, harrigarria da Bizkaian euskarak izan duen bilakaera. Gorakada handiena gazteen artean izan da, zalantzarik gabe D ereduko matrikulazioak sustatu eta hobesteari esker —EAEko ikasleen % 73 D ereduan matrikulatzen da eta % 22 B ereduan (Hezkuntza Saila, 2021)—. Hala ere, hitz egitea beste kontu bat da.

Marko teorikoan adierazi bezala, autokontzeptuaren, faktore afektiboen eta ikasteko estrategien eragina baliatu behar da hizkuntza bat eskuratzeko edo ikasteko prozesuan. Ikerketa honetan aldagai hauen artean korrelazio positiboa dagoela aztertu ahal izan da, estatistikoki esanguratsuak izanik korrelazio horiek; hartara, dimentsio batean emaitza baxuak aurkeztuz gero, gainerako dimentsioetan ere eragina duela ikusi ahal izan dugu.

Ikerketaren hasieran definitutako hipotesia bete dela baieztatu dezakegun arren, emaitza guztietan korrelazioa positiboa izan delako, euskararen erabileraren dimentsioan jasotako

---

<sup>2</sup> Dibulgaziozko bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=4mGKd-dg2-M>

emaitzek kezkatzen gaituzte. Horixe baita dimentsio guztietan emaitzarik baxuena lortu duena (ikus 5.3. eta 5.6. azpiatalak).

Gauzak horrela, argi geratzen da gure fakultatean nahiz eta euskararen aldeko giro linguistikoa bultzatzen den, euskararen erabilera ez datorrela bat ahalegin horiekin. Horregatik, hizkuntza-kontzientzia sustatu behar da, euskarari estatus egokia emateko. Horrela, euskarak bizi duen diglosia egoera gainditu behar da (Txillardegi, 1978), elebitasun eredu orekatura hurbilduz.

Esparru honetako etorkizuneko ikerketei begira, zehaztasun maila handiagoarekin ikertu ahal izateko lagina handitzeko beharrezana ikusten da (fakultateko ikasleak zein langileak ikertzea). Hala ere, argi dago euskaraz hitz egiten dutenak gutxiengoa direla oraindik gure testuinguruan, eta ikerketako emaitzak euskararen erabilera urria agerian uzten jarraituko lukete, mahai gainean egon den eta dagoen kezka baita (nik neuk ere badaukadana).

Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslegaien artean euskararen erabilera sustatzeko abiapuntu gisa sortu da 6. atalean aurkezten den dibulgazio-bideoa. Material hori unibertsitatean landu daiteke, graduako edozein ikasgaitan, ikasleengan kontzientziazioa eriteko. Euskararen normalizazioaren errealitate kezkarria ikasleei azaltzea erabakigarria izan liteke hizkuntza-ohituretan, eta ahalegin handiagoa egin beharko lukete hizkuntza kontserbatzeko eta sustatzeko.

Puntu honetan ardura zaiguna da euskarak irautea eta bizirautea, hiztunen egunerokotasunean presente egotea. Bestela esanda, etxean, kalean eta, batez ere, hezkuntza arloan, protagonista izatea. Kontuan izanik, hain zuzen ere, eskolan, zerbitzu publikoekin batera, euskararen erabilera handiena aurkezten dela, esku-hartzerik eta hizkuntza-politika aktiborik ez badago, euskarak ez du aurrera egingo.

Hezkuntza formalaren testuinguruak euskararen defendatzaile nagusietako bat izan beharko luke, euskarari lekua eginez eta komunikazioaren protagonista bihurtuz. Azken batean, ikasleak hizkuntza erabiltzera motibatu behar dira, horretarako dituzten zailtasunak edozein direla ere, eta, horrela, pertenezkoa sentimendua bultzatu behar da. Gainera, kontuan hartuta Bakerrek (1992) egindako baieztapena, zeinak azaltzen baitu jarrerak ikasten direla eta aldatzeko modukoak direla, jarduteko tarte handia uzten die hezkuntza-erakundeei eta, zehazki, irakasleei. Ikastetxeek ikasleek euskaraz egin dezaten lagundu behar dute, eta euskara komunikazio-tresna izan dadin lan egin behar dute.

Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslegaiak izango dira, funtsean, euskara sustatzearen giltza eta gakoa. Etorkizuneko hizkuntza-irakasle gisa, hauek dira, batik bat, hizkuntzaren erabilera bultzatuko duen ingurune bat sortzeko arduradunak. Hain zuzen ere, aurreiritzirik gabeko ingurune bat, hizkuntzaren magiaz beldurrik gabe gozatzeko aukera ematen duena. Gauzak horrela, gakoa da irakasle izango garen aldetik izango dugun erantzukizunaz kontziente izatea.

Amai dezagun Eguskizak eta Gamindek (2022) aurkeztutako ideia bat gurera ekarriz. Hizkuntzak kamaleoiek egiten duten antzera egiten du; kamaleoia azalaren kolorea ingurugiroarekin konkordantzian eta koherentzian aldatzen duen bitartean, hizkuntzak, gaur egungo beharrezko erantzuteko, eta eguneratzeko moldatu egiten da. Beraz, beharrezkoa da euskararen balioaz jabetzea eta euskara balioestea, hiztunak euskara edozein formatan erabiltzera animatuz. Hala ere, fronte guztietatik defendatu egin behar da: hezkuntza-, kultura- eta politika- arloetatik, hain zuzen ere.

## **8. Etika profesionala**

Ikerketa hau egiteko, etika profesionala eta datuen babesa hartu dira kontuan. Alde batetik, inkestatuei galdetegiaren hasierako mezu baten bidez jakinarazi zaie jasotako datuen pribatutasuna eta anonimotasuna uneoro errespetatuko dela, hain zuzen ere, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat eginez. Bestalde, dibulgaziozko bideorako 6 parte-hartzaileei bideo honen helburuaren eta erabiliko zen metodologiaren berri eman zitzaizen baimen orriaren bidez (ikus 10.2. eranskina). Bertan, grabatuak izateko eta bideoa Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle zein ikasleen aurrean erreproduzitu ahal izateko baimena ematen zuten, edozein unetan errekifikatzeko aukera eskainiz.

## 9. Erreferentzia bibliografikoak

- Álvarez, J. (2016). *Dioses útiles. Naciones y nacionalismos*. Galaxia Gutenberg.
- Ausubel, D. (1968). *Educational Psychology: A Cognitive View*. Holt, Rinehart & Winston.
- Azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko legea, Euskararen erabilpena arautzekoa. (Euskal Herriko Boletín Ofiziala 160 zbk, 1982.eko Abenduak 19koa, 3138-3146 orr.)  
<https://n9.cl/g2p99>
- Baker, C. (1992). *Attitudes and language*. Multilingual Matters.
- Barrios, M. (1997). *Motivación en el aula de lengua extranjera*. <https://n9.cl/dgx1b>
- Boletín Oficial del Estado (1978). *Constitución española*. Ministerio de la Presidencia.  
<https://n9.cl/na5fh>
- Boletín Oficial del Estado (1979). *Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco*. <https://n9.cl/7tmhi>
- Bonilla, L. F., eta Díaz, M. (2019). Incidencia de los factores socio-afectivos en el aprendizaje del inglés. *Revista de la Escuela de Ciencias de la Educación*, 1(14), 49-64.  
<https://n9.cl/uktqk>
- Castro, J. A. E. (2008). Interpretación de los diagramas de dispersión por estudiantes de Bachillerato. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 257-270. <https://n9.cl/x2gbu>
- Castro, J. A. E., eta Bernabeu, C. B. (1995). Concepciones iniciales sobre la asociación estadística. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 155-170. <https://n9.cl/euq7v>
- Curtis, K. (2000). *A review of Traditional and Current Theories of Motivation in ESL*. Prentice-Hall.
- Díaz, A. (2009). *Diseño estadístico de experimentos 2a Ed*. Universidad de Antioquia.  
<https://n9.cl/tg65b>
- Díaz, A. eta Quiroz, R. (1998). Enseñanza cognitiva y estratégica en ciencias naturales para el desarrollo de la habilidad de solución de problemas en contaminación ambiental. *Revista Educación y Pedagogía*, 10 (21), 97-115. <https://n9.cl/3pv6d>
- Eguskiza, N. eta Gaminde, I. (2022). *Ahoskera Igorren 1981-2000*. Igorreko Udala.
- Euskal Herriko Autonomia Estatutua. (3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa).  
<https://n9.cl/ue4bz>
- Euskal Herriko Unibertsitatea. (2019). *UPV/EHUren zeharkako gaitasunen katalogoa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://n9.cl/iqbjc>
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. (1999). *Plan general de promoción del uso del euskera*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. <https://n9.cl/zuy3u>
- Fabila, A., Minami, H. eta Izquierdo, M. (2012). La Escala de Likert en la evaluación docente: acercamiento a sus características y principios metodológicos. *Perspectivas docentes*, 50, 31-40. <https://n9.cl/da0x>

- Flores, J. eta Flores, R. (2018). La enseñanza del diagrama de caja y bigotes para mejorar su interpretación. *Revista Bases de la Ciencia*, 3(1), 69-75. <https://n9.cl/wol0>
- Garabide Elkartea. (2010). *Hizkuntzaren estandarizazioa. Euskararen berreskuratzea II*. Garabide Elkartea. <https://n9.cl/ea9tm>
- García-Azkoaga, I. M. eta Idiazabal, I. (2021). Garapen Iraunkorreko Helburuei so hizkuntzen betaurrekoekin. *Ekaia*, ale berezia 2021, 277-296. <https://n9.cl/r2o4gg>
- Gardner, R. (1982). Language attitudes and language learning. *Attitudes towards language variation*, 132-147.
- Gardner, R. (1985). *Social Psychology and second language learning: The role of attitudes and motivation*. Edward Arnold. <https://n9.cl/w6p6r>
- Gardner, R. eta Lambert, W. (1972). *Attitudes and Motivation in Second Language Learning*. Newbury House Publishers.
- Giralt, J. eta Nagore, F. (2018). *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización*. Pressas de la Universidad de Zaragoza. <https://n9.cl/t3cz7>
- Goenaga, P. (1999). Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia: 80 años de trabajo por la normalización del vasco. *Arbor*, 163(641), 77-98. <https://n9.cl/6rx4l>
- Goenaga, P. (2000). Euskaltzaindia eta euskararen arautzea. *Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV)*, 45, 11-42. <https://n9.cl/gpwg6>
- Goenaga, P. (2004). El territorio del Euskara: CAV, Navarra e Iparralde. In *On the Margins of Nations: Endangered Languages and Linguistic Rights* (119-129 orr.). Institut d'Estudis Catalans. <https://n9.cl/hywqm>
- Hezkuntza Saila (2021). *Matrikula Bizkaia: Lehen Mailako Hezkuntzako ikasleak*. Eusko Jaurlaritza. <https://n9.cl/quvng>
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Eusko Jaurlaritza (2016). VI. Inkesta Soziolinguistikoa. <https://n9.cl/giqd2>
- Janés, C. (2006). Las actitudes hacia las lenguas y el aprendizaje lingüístico. *Revista Interuniversitaria de Formación de Profesorado*, 20(2), 117-132. <https://n9.cl/qa438>
- Joly, L. eta Uranga, B. (2010). Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak. In *Soziolinguistika Eskuliburua* (185-228 orr.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://n9.cl/6fo9z>
- Johnson, R. eta Kuby, P. (2012). *Estadística elemental*. Cengage Learning Editores S.A.
- Lalinde, J. D. H., Castro, F. E., Rodríguez, J. E., Rangel, J. G. C., Sierra, C. A. T., Torrado, M. K. A., ... eta Pirela, V. J. B. (2018). Sobre el uso adecuado del coeficiente de correlación de Pearson: definición, propiedades y suposiciones. *Archivos venezolanos de Farmacología y Terapéutica*, 37(5), 587-595. <https://n9.cl/638lz>
- Larrea, I. eta Bilbao, P. (2010). Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza. In *Soziolinguistika Eskuliburua* (231-283 orr.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://n9.cl/6fo9z>

- Madariaga, J. (1994). Actitud y rendimiento en euskera. Una experiencia vasca basada en la aportación canadiense. *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 6(4), 119-127. <https://n9.cl/z9u69>
- Martínez, L. (2010). Hizkuntzaren aldakortasuna. In *Soziolinguistika Eskuliburua* (85-130 orr.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://n9.cl/6fo9z>
- Martínez de Luna, I. (2013). Euskarak duen framing berri baten premia asetzeko proposamena. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 13-96. <https://n9.cl/ma2z9>
- Moore, D. S. (2005). *Estadística aplicada básica*. Antoni Bosch editor. <https://n9.cl/yul5e>
- Orrego, L. eta Díaz, A. (2010). Empleo de estrategias de aprendizaje de lenguas extranjeras: inglés y francés. *Íkala, revista de lenguaje y cultura*, 15(24), 105-142. <https://n9.cl/221xq>
- Protección de Datos de Carácter Personal. (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa). <https://n9.cl/oc9um>
- Restrepo, L. F., eta González, J. (2007). De Pearson a Spearman. *Revista Colombiana de Ciencias Pecuarias*, 20(2), 183-192. <https://n9.cl/dment>
- Ruiz de Azua, U. (2013). DBHko ikasleen euskararekiko jarrera linguistikoak, motibazioa eta errendimendu akademikoa. [Doktorego tesia]. UPV-EHU. <https://n9.cl/51805>
- Sanz, C. eta Rabazas, T. (2020). La cuestión lingüística en la práctica educativa de la enseñanza primaria en el País Vasco y Navarra durante el franquismo (1950-1959). Un estudio a partir de un fondo documental etnográfico. *Educació i Història: revista d'història de l'educació*, (35), 75-102. <https://n9.cl/4vm2c>
- Seoane, T., Martín, J. L. R., Martín-Sánchez, E., Lurueña-Segovia, S. eta Moreno, F. A. (2007). Capítulo 7: estadística: estadística descriptiva y estadística inferencial. *SEMERGEN-Medicina de familia*, 33(9), 466-471. <https://n9.cl/h9t29>
- Soziolinguistikako klusterra eta UPV/EHU. (2021). *UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntzen erabileraren neurketa: Praktika on gisa*. <https://n9.cl/ej4rm>
- Torres, T. (2003). El aprendizaje verbal significativo de Ausubel. Algunas consideraciones desde el enfoque histórico cultural. *Universidades*, (26), 37-43. <https://n9.cl/9lwsu>
- Txillardegí. (1978). *Euskal Herritik erdal herrietara*. Egile editore.
- Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarian hizkuntza ofizialen erabilera arautuz. (Euskal Herriko Boletín Ofiziala 108 zbk, 1983.eko Uztailak 19koa, 2471-2475 orr.). <https://n9.cl/w5ljs>
- Zabaleta, J. (2019). La estandarización del euskera: breve historia y resultados. *Límite*, 13 (2), 123-142. <https://n9.cl/oafqw>
- Zarraga, A. (2010). Soziolinguistikari sarrera. *Materiala Soziolinguistika Eskuliburuan* (21-81 orr.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://n9.cl/6fo9z>
- Zuazo, K. (1988). *Euskara Batua: Aitzindariak eta beste*. Euskera-XXXIV. <https://n9.cl/433yi>



**10. Eranskinak**

**10.1. Eranskina: Laginaren hedadura**

Taldea	N	Batezbestekoa (%)
<b>SEXUA</b>		
Gizonezkoa	12	% 11,4
Emakumezkoa	93	% 88,6
<b>GRADUA</b>		
Lehen Hezkuntza (Hirueledun)	64	% 61
Lehen Hezkuntza (Euskera)	41	% 39
<b>IKASTURTEA</b>		
1. maila	4	% 3,8
2. maila	62	% 59
3. maila	14	% 13,3
4. maila	25	% 23,8
<b>ZONALDE GEOGRAFIKOA</b>		
Euskarazko zonaldea	21	% 20
Tarteko zonaldea	84	% 80
<b>AMA HIZKUNTZA</b>		
Gaztelania	73	% 69,5
Euskara	29	% 27,6
Beste bat	3	% 2,9
<b>EREDU LINGUISTIKOA</b>		
A eredia	81	% 77,1
B eredia	21	% 20
D eredia	3	% 2,9
<b>EUSKARA MAILA</b>		
C1	51	% 48,6
B2	53	% 50,5
B1	1	% 1

10. taula. Laginaren hedadura.

**10.2. Eranskina: Baimen-orria****Informaturiko onespena****Arduraduna:**

Helbidea:

Helbide elektronikoa:

Nik \_\_\_\_\_ (izen-abizenak), \_\_\_\_\_ NAN zenbakidunak baimena ematen diot Ainhize Martínez Garcíari nire bideo grabaketak egiten ari den ikerketan erabili ahal izateko eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko ikasleen aurrean erreproduzitzeko.

Ikerketaren **helburua** da Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslegaien euskararen erabileraren eta jarreraren arteko korrelazioa aztertzea, batetik autokontzeptua eta bestetik, ikasteko estrategiak eta motibazioa bezalako faktoreek zer-nolako eragina duten aztertuz.

Horretarako, ondoko **metodologia** burutuko da: bi galdera proposatuko zaizkio partehartzailerari: “Zer oztopo aurkitzen dituzu euskaraz komunikatzeko?” eta “Zer egiteko prest zaude euskararen erabilera areagotzeko?”. Ondoren, grabazioak egiteari ekingo zaio.

Ikerketa honetan **parte-hartzea borondatezkoa** da. Laginen dohaintza altruista da eta ez du ordainsaririk jasoko. Hori bai, momenturen batean, sartzeko, errektifikazio, bertan behera uzte eta oposizioa, burutu ahal izango dute, inongo azalpenik eman behar gabe, ikertzaile nagusiarekin kontaktuan jarritz.

Partehartzailearen sinadura eta data:

--

### 10.3. Eranskina: Itemak

#### 10.3.1. Autokontzeptua

Item zbk.	Enuntziatua
A1	Euskaraz zein gaztelaniaz jariotasun berarekin hitz egiteko gai naiz.
A2	Neure burua trakets ikusten dut euskaraz hitz egiterakoan.
A3	Nire izaeragatik eta jarduteko moduagatik kanporakoia naizela uste dut; horrek nire hizkuntza-trebetasunak garatzeko aukera ematen dit.
A4	Oro har, lotsa ematen dit besteen aurrean euskaraz jarduteak.
A5	Euskaraz hitz egiten edo idazten dudanean, akats asko egiten ditut.
A6	Euskalkiak ulertzea kostatzen zait.
A7	Euskaraz trebea naizela uste dut.
A8	Zaila egiten zait euskaraz moldatzea.
A9	Ez dut balio euskararekin zerikusia duten ikasgaietarako.
A10	Ongi moldatzen naiz euskarazko unibertsitateko lan eta azterketetan.
A11	Hizkuntzak ikasteko balio dut.
A12	Azterketak edo lanak euskaraz egitean, beste ikaskideei baino okerrago ateratzen ari zaidala pentsatzen dut.
A13	Euskara sustatzeko egiten ari naizen esfortzuarekin pozik nago.
A14	Nire euskara gaitasuna hobetzeko egiten ari naizen esfortzuarekin pozik nago.

11. taula. A blokeko itemak.

#### 10.3.2. Ikasteko estrategiak eta motibazioa

Item zbk.	Enuntziatua
B1	Euskararen aldeko ahaleginak egiteko prestutasuna daukat.
B2	Euskara interesatzen zait, horregatik ikasten eta praktikatzen dut.
B3	Euskara ikasteko eta praktikatzeko motibatuta sentitzen naiz, eta horregatik ahalegintzen naiz.
B4	Euskara ondo ikasteak dituen zailtasunak gorabehera, ahal dudan denbora guztia ematen dut eta emaitzarik onenak lortzen ahalegintzen naiz hizkuntza menderatu nahian.

B5	Euskararen hedapenarekin inplikaturik sentitzen naiz.
B6	Batzuetan, euskara ikasteko aldian, ulertezintasuna, nahastea, frustrazioa eta larritasuna gertatzen dira. Horrelako egoeren aurrean, pazientziarekin eta umore-sen onarekin erreakzionatzen dut.
B7	Garrantzitsua da niretzat euskara menderatzea, nire lan-erortzunerako duen balioagatik.
B8	Urduri jartzen naiz lanak eta azterketak euskaraz egiten ditudanean.
B9	Euskaraz aurkeztu behar dudanean, bizkortu egiten da nire pultsua.
B10	Jomuga irisgarriak finkatzen ditut euskara ikastea.
B11	Hizkuntzarekiko erraztasunik ez badut, ez ditut ikasketak alde batera uzten.
B12	Euskara ikasten edo erabiltzen zapuzten naizenean, bertan behera uzten dut.

12. taula. B blokeko itemak.

### 10.3.3. Euskararen erabilera

Item zbk.	Enuntziatua
C1	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu etxean?
C2	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu unibertsitateko irakasleekin?
C3	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu unibertsitateko ikasleekin?
C4	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu idazkaritzako langileekin?
C5	Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?
C6	Zein hizkuntzarekin sentitzen zara erosoan lan edo azterketa bat egiterakoan?
C7	Zein hizkuntzarekin sentitzen zara erosoan hitz egiterakoan?
C8	Zein hizkuntzatan pentsatzen duzu?

13. taula. C blokeko itemak.

### 10.3.4. Euskararekiko jarrerak

Item zbk.	Enuntziatua
D1	Euskara hizkuntza polita da.
D2	Euskaraz hitz egitea gustatzen zait.
D3	Jendeak euskaraz hitz egitea gustatzen zait.

D4	Desatsegina da euskara ikastea.
D5	Desatsegina da euskaraz ikastea.
D6	Euskara erakartzen nauen hizkuntza da.
D7	Euskara oso erabilgarria da.
D8	Euskara oso hizkuntza zaila da.
D9	Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiteko behar dudalako ikasten dut euskara.
D10	Euskara ikastea alferrikakoa da.
D11	Euskarak euskaldun egiten gaituen hizkuntza da.
D12	Euskal Herriko ume guztiek euskara ikasi behar dute.
D13	Euskal Herrian, hezkuntza eremuan lan egiteko, euskarazko gaitasun agiria eskatzea ezinbestekoa da.
D14	Irakasleen ardura da euskararen erabilera sustatzea.
D15	Denok egin beharko genuke esfortzua euskarak balio handiagoa izan dezan.
D16	Ingelesa euskara baino garrantzitsuagoa da.
D17	Euskal Herriaren nortasunarentzat euskara bizirik mantentzea funtsezkoa da.
D18	Munduan hizkuntza bakarra egotea litzateke egokiena, hobeto komunikatzeko.
D19	Euskara galtzea ez da arazo bat.

**14. taula.** D blokeko itemak.